

EIBARKO KLIMATHONAREN ERRONKAK

| | |
|--|--|
| <p>ERRONKAREN IZENBURUA</p> <p>Industria-enpresen, erakunde publikoen eta auzokoen partaidetza duen energia-komunitatea garatzea.</p> | <p>HURA BULTZATZEN DUTEN ERAKUNDEAK</p> <p>DEBEGESA Debabarreneko Garapen Agentzia</p> |
| <p>KONPONDU BEHARREKO FUNTSEZKO ARAZOA</p> <p>(Edo erakundeak duen eta ikertu nahi duen premia). Oinarrizko autokontsumoko komunitate batetik abiatzen da, instalazio fotovoltaiko batetik abiatuta enpresa talde batek sortua. Erronkaren proposamena da enpresen autokontsumoaren komunitatea zabaltzea, erakunde publikoek, etxebizitzek eta hurbileko bizilagunen komunitateek parte hartuko duten komunitate energetikoaren eredu batera. Energia-horniduratik haratago joatea da kontua, energia aurrezte eta komunitate energetikoen herritarren parte-hartzearen alderdi soziala ere barnean hartuta. Gainera, negozio-eredu berriak edo garatzeko bidean dauden jarduerak planteatu litezke, energia-komunitatea dagoen ingurunerako eragile sozial eta ekonomiko bihurtzeko.</p> | <p>TESTUINGURUA</p> <p>(Azaldu erronka zein testuingurutan garatu nahi den). Komunitate energetikoak tresna berriak eta oso beharrezkoak dira trantsizio energetikoa eredu komunitario eta parte-hartzaile batetik garatzeko. Egia da hainbat ikuspegi sortu direla tresna hori garatzeko moduari buruz, baina Climathon lan-eremua izan liteke, DEBEGESAK proposatzen duena bezalako ekimenetatik abiatuta sor daitezkeen aukera ugari buruz hausnartzeko, ikertzeko eta babesteko. Proposamen horrek hiri-ingurune berean elkarrekin bizi diren askotariko eragileak (industria, erakunde publikoak eta etxebizitzak) bateratzen ditu, hala nola Debabarreneko udalerriak.</p> |
| <p>EKARTZEN DITUEN ONURAK</p> <p>(Zer lortu nahi den erronkarekin). Industrialde batek bere burua hornitzeko sor ditzakeen energia-baliabideak aprobeztatzea. Hiri- eta industria-inguruneetan harreman-eredu hibridoak sustatzea. Gizartean eta ingurumenean eragin positiboak lantzeko modu bat. Gainera, pobrezia energetikoa, autokontsumoa eta soberako energiaren aprobeztxamendua bezalako arazoak arindu ditzakeen Komunitate Energetikoa sortzea.</p> | <p>MUGATZAILE POSIBLEAK</p> <p>(Erronka aurrera eramateko arazoak identifikatzea). Ondo koordinatu behar dira Komunitate Energetikoaren ideia eta bere osagai soziala sinbiosi industrialaren ideiarekin eta udalerritik gertu dauden enpresentzako negozio eta aukera ereduarekin.</p> |
| <p>TRAZABILITATEA DENBORAN</p> <p>(Zer gertatzen da erronkarekin Climathon ekitaldiaren ondoren? Erronkaren jarraipena). Aurkeztutako proposamenak DEBEGESAren ikuspegiarekin bat badatoz.</p> | <p>BULTZATZAILEEN KONPROMISOAK</p> <p>(Epe luzerako konpromisoa Climathonen erronka landu duen taldearekin). DEBEGESAren konpromisoa proiektuaren garapenaren jarraipena ziurtatzea da, TFGrako edo EHUrekin praktikak egiteko ikerketa-hitzarmen bidez.</p> |